

Topalekua

54zk. 2009ko abendua

diciembre 2009 - n.º 54

pág. 1 y 2: UPV/EHUko Gizarte Kontseiluaren osoko bilkurak ordainsari osagarrietarak osarbidea izateko III deialdia onartu du

pág. 2: Bekek Familia gehiagori ekarriko diete onura

pág. 3 y 4: Ikasle ohiek aurkeztutako proiektu batek jaso du Gizarte Kontseiluaren Ideia Lehiaketako Saria

Deialdiaren oinarriak Kontseiluaren web gunean kontsulta daitezke:
www.gizartekontseilua.com

UPV/EHUko GIZARTE KONTSEILUAREN OSOKO BILKURAK ORDAINSARI OSAGARRIETARAK OSARBIDEA IZATEKO III DEIALDIA ONARTU DU

Azaroaren 18an Bilbon egindako UPV/EHUko Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkurak unibertsitateko irakasleek irakaskuntza eta ikerkuntza arloetan egindako merituen ebaluazioa eskatzeko III Deialdia onartu zuen; horrela, Eusko Jaurlaritzaren 2006/209 Dekretuak ezarritako ordainsari osagarri gehigarrietarako sarbidea izango dute.

Aurreko deialdietan bezala, aipatutako Dekretuan ezartzen diren betekizunak bildu, UNIQUALEk egindako ebaluazioa gainditu eta 2007 eta 2008ko deialdietan parte hartu ez duten UPV/EHUko irakasle eta ikertzaile guztiek, funtzionario zein lan-legepeko kontratatuek, izango dute osagarri gehigarrietarako irispidea.



(2. orrietan jarraitzen du)

UPV/EHUko GIZARTE KONTSEILUAREN OSOKO BILKURAK ORDAINSARI OSAGARRIETARAK OSARBIDEA IZATEKO III DEIALDIA ONARTU DU

Ebaluazio-eskabideak aurkezteko epea bi hilabetekoa izango da III Deialdia EHAAr argitaratzen denetik aurrera. UNIQVAL-ek merituen ebaluazioa eginda, Gizarte Kontseiluak, Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak proposatuta, irakasle bakoitzak jasoko dituen osagarrien zenbatekoa ezarriko du, banan-banan. Gizarte Kontseiluak onartutako osagarriek bost urtez izango dira baliagarriak; horietan zehar interesatuak ez dute beste ebaluazio-prozesu batera aurkezterik izango.

Osagarri gehigarriak hiru mailatan sailkatzen dira: A maila, bikaintasuna aitortzeko helburua duena; B maila, kalitatea eta etengabeko hobekuntza balioesten duena, eta C maila, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearekiko ardura profesionala aitortzen duena. Azkeneko maila hau, aldi berean, bi ataletan zatituta dago: C1, 3 Unibertsitatearentzako zerbitzu-urte eskatzen dituena, eta C2, langile izan eta 7 urtera sartzeko aukera ematen duena. Antzintasunari dagokionez, interesatuak beka ofizial bat izandako denbora zenbatzen da. Deialdiaren oinarri osoak, baita ordainsari-osagarrietako atal bakoitzerako sarbidea izateko betekizunak ere, UPV/EHUko Gizarte Kontseiluaren web gunean kontsulta daitezke: www.gizartekontseilua.com.

Bestalde, eta Unibertsitateak Gizarte Kontseiluari kontuak emateko prozesuaren testuinguruan, Osoko Bilkurak 3,3 milioi euroko defizita azaltzen duten UPV/EHUren 2008 ekitaldiari dagozkion aurrekontuen

kontabilitateko egoera-orriak onartu zituen, eta honako gomendioak eman zituen:

- Soberakin guztien azterketa xehea egin, horietako bakoitzaren erabilera zehazteko.
- Eragiketak kontabilitate-printzipio eta arauen arabera erregistratu, baita diru-laguntzen justifikazioak kontzesioaren oinarrietan ezarritakoaren arabera ere.
- Kontabilitate-arau eta printzipio publikoak aplikatu, diru-sarrera eta gastu bakoitza dagokion unean islatzeko xedeaz, aurrekontuaren likidazioak ekitaldiko diru-sarrera eta gastuen benetako irudia azal dezan.
- GABE eta bestelakoetara egindako ekarpenak aitortutako obligazio bezala erregistratu.

Azkenik, Osoko Bilkurak Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak Espainiako Industria Segurtasun Plataforma Teknologikoan (PESI) parte hartzea, bost ikasketa osagarri ikastaroen (Ordenagailu bidezko Grafikoa, Gizarte Esklusio Arriskuan diren Gizarte Sektoreak, Zuzenbide Administrazioa eta Giza Eskubideak, Merkantzia Arriskutsuen Garraiorako Segurtasun Kontseilaria eta Nazioarteko Praktiken Programa Aurreratua) matrikularen prezioa eta “CAD/CAE: Ingeniaritza, elementu finitu bidezko Kalkulu eta Zenbakizko Simulazio Ikastaro Aurreratua” ere onartu zituen.

BEKEK FAMILIA GEHIAGORI EKARRIKO DIETE ONURA

Beka-sistemei onura aterako dieten familien kopuruak %5 egingo du gora, laguntza horiek jasotzeko eskubidea ematen duen familia-errentaren ataria ehuneko 13,6 igo da eta, Marius Rubiralta, Unibertsitate Idazkari Nagusiak Senatuan esandakoaren arabera.

“Estatuak —azaldu zuenez— osorik finantzatuko ditu tartearen azpiko muturretik behera geratzen diren errentak dituzten pertsonen ikasketak”; Espainiak aurki EBko lehendakaritzaren ardura hartuko du bere gain, eta orduan Espainiak Hezkuntzari “ikuspegi soziala” emateko aukera izango du, talentudun pertsona guztiek ekoizpen-ereduaren aldaketan modu aktiboan parte hartzeko modua izateko asmoz, “edozein delarik ere bere egoera ekonomikoa”, gehitu zuen.

Rubiraltak urritasuna duten pertsonentzako laguntzek ere berebiziko garrantzia dutela gogora arazi zuen, baina baita %65eko urritasun-mailaren berdina edo hortik gorakoa dutenek bakarrik jasotzen dutela onartu ere. Idazkari Nagusiaren aburuz, bekei dagokionez zenbateko ekonomikoa ez da garrantzitsua den gauza bakarra, banaketaren eraginkortasun eta efikazia baizik.

Bestalde, beketan gastatutakoaren %28,3 mugikortasun-programetan erabiltzen dela azpimarratu zuen eta, horietatik, %90,4 ‘Erasmus’ beken gastuari dagokio. Halaber, eta EBra egokitzeko estrategiaren testuinguruan, irakasleek atzerrian ikas dezaten 2.100 euroko laguntzak nabarmendu zituen, baita hizkuntza-irakaskuntza beka ere; horiei 45.000 ikaslek ateratzen diete onura gaur egun.

Amaitzeko Estatu Idazkariak lurraldez lurraldeko laguntza-sistemeekin banaketa-irizpideak eta autonomia-erkidego bakoitzak jasotzen dituen zenbatekoak bateratu egiten direla adierazi zuen. Gobernuak, modu horretan, aukera- eta eskabide-berdintasuna eta hiritar guztiek horietarako sarbidea izatea aitortzen duen sistema indartu nahi du, non bizi diren axola gabe.

IKASLE OHIEK AURKEZTUTAKO PROIEKTU BATEK JASO DU GIZARTE KONTSEILUAREN IDEIA LEHIAKETAKO SARIA

Hiru ikasle ohik aurkeztutako gizarte-sare nagusietan “lagun birtual” bat sortzeko ideiak, UPV/EHUko web gunearen zerbitzuak erabiltzen laguntzeko, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Kontseiluak deitutako II Ideia Lehiaketan saritua izan da. Juanan Pereirak —UPV/EHUko irakasle, gaur egun— eta Mikel Niñok saria jaso eta ideia azaldu egin zuten Gizarte Kontseiluaren aurrean, joan den azaroaren 18an egindako Osoko Bilkuran.

Aurkeztutako proposamenak **lagun birtual** bat sortzea du estrategia nagusi, UPV/EHUko ikasleek erabili ohi dituzten edozein gizarte sare eta berehalako mezularitza-programetan eskura dagoen kontaktu bezala; UPV/EHUko web gunearekin lotutako galderei erantzunak emango lituzke, modu automatizatuan, elkarriketa normal bat bailitzan. Lagun birtual hau inguru horietan eskura egongo litzateke, telefono mugikorrean eta UPV/EHUko web gunean bertan, bilatzaile tradizionalaren osagarri.

Proposamena egikaritzeko, egileek UPV/EHUko web gunearen informazioaren hartzaile den publikoari buruz egindako azterketa aurkeztu zuten; bertan argi eta garbi agertzen da informazio horretan interesa

duten kolektiboen aniztasun handia (ikasleak, irakasle eta ikertzaileak eta administrazio eta zerbitzuetako langileak —AZL—). Gainera, kolektibo bakoitzean kasu asko ematen dira (matrikula egiteko interesa duten aurre-ikasleak, ikasten ari direnak, ikasle-ondokoak eta egresatuak, lan-poltsetan interesa dute aurre-AZLak, etab.). Aniztasun honetatik abiatuta, 1. eta 2. zikloko ikasleak identifikatu zituzten (aipatu hiru kolektiboen %85tik gora) proposamenaren ikuspegia zuzentzeko helburu bezala, inpakturik handiena bermatzeko.

Proposamenaren beste ideia nagusi bat web guneko informazioaren ohiko fluxua alderantzizkatzea da: ikasle horiek UPV/EHUko webgunera erakarri ordez, web gunea bera eta bere edukiak ikasleak dauden tokietara joan daitezela. Informazioaren Gizartearen eboluzioak eta eskura diren tresna berriek aldaketa hori posible egiten dute, estatistikek ere adierazten dutenez: TNS Demoscopiak Pfizer Fundazioarentzako berriki egindako ikasketa batean, 11 eta 20 urte arteko gazteen %92,6ak gizarte sareak (erabilpen-mailaren arabera: *Tuenti*, *Facebook* eta *MySpace*) eta berehalako mezularitza (*Microsoft Messenger*) erabiltzen du. Adin horretatik aurrera, modu masiboan erabiltzen jarraitzen dute, baina erabiltzaileek lehentasunak aldatu egiten



Talde irabazleak bere proposamenaren berri eman zion Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkurari


IKASLE OHIEK AURKEZTUTAKO PROIEKTU BATEK JASO DU GIZARTE KONTSEILUAREN IDEIA LEHIAKETAKO SARIA

dituzte (*Facebook* eta *Twitter*-en erabilerak gora egingen du).

Datu hauek, ideiareen sortzaileen arabera, gizarte-sare eta berehalako mezularitza programetako lagun birtualaren proposamenaren baliotasuna eta inpaktua berresten dute. Lagun birtual hau teklatuaz beste aldean pertsona erreal batek bezala elkarreragin lezakeen software-programa bat bezala sortuko litzateke. Modu horretan, ikasleek bere kontaktu-zerrendan sartu ahal izango lukete eta une horretatik aurrera UPV/EHUKo web guneari buruzko galderak botatzeko aukera emango litzaike, beste edozein elkarrizketa batean bezalatsu. “Zer nota ateratu nuen Programazioa irakasgai 2009ko Otsailean?”, “Noiz da Estatistikako azterketa?”.

Lagun birtuala bere erantzuna prestatzeko gai izango litzateke, UPV/EHUKo web gunean diren edukien etiketatzeari esker, 2.0 teknologiei esker modu kolektiboan egingo litzatekeena. Gainera, lagun birtuala aparteko feedback-iturri bilaka liteke web guneari kudeatzaileentzako, izan ere web guneko erabiltzaileek zehazki zer galdetu eta bilatzen duten jakiteko modua izango luketelako. Lagun birtualak erantzunik topatzeko modurik ez duen kasuetan, informazio egokia emango luke etiketatzea egokitze beharra identifikatu edo edukia sortzeko, existituko ez balitz.

Lagun birtualaren proposamenak web 2.0 teknologiei esker sortuz doazen *on-line* inguru berrietan UPV/EHUKo presentzia indartzeko helburua duten beste zenbait ekintza izango lituzke osagarri.



Pereira eta Niñok Kontseiluko Lehendakari Jose Miguel Martínez Urquijorengandik jasotzen duten saria.